

musika

■ Andoain

● Oskorri eta Maskarada. Landalan diskoaren aurkezpena. Allurralde Kirolegian 22.00etan.

■ Berango

● Keatz eta Izenik ez taldeen kontzertua izango da 22.30etan frontoian HBk antolatutako jaialdiaren barruan.

■ Bilbo

● Kontzertu berezia. Norton eta Aitor Gorosabel musikariak Serrano idazlearekin batera. Lin Ton Tauneko Joseba eta Muñatxo, Betagarri taldeko Iñaki, Bizkar hezurereko Triku, bertsolariak eta abar. 19.30etatik aurrera izango da.

● Opera. Wagnerren 'El buque fantasma' opera zuzenduko du Friedrich Haiderrek. Coliseo Albia Antzokian 20.00etan.

● Estigia, Dormant Soul eta Nordesth. En canal aretoan.

■ Donostia

● Mikel Laboa. Bere azken lanaren aurkezpena. Victoria Eugenia Antzokian. 22.00etan.

● El último de la fila taldearen kontzertua izango da Anoetako Belodromoan.

● Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Miramoneko eguerdiak. Goizeko 11.00etan.

■ Ezpeleta

● Sustrai eta Tapia eta Leturia Band.

■ Gares

● Blind Guardian, Bram Stoker eta Dresden in Black. Funda Mental aretoan.

■ Getxo

● Albert Pla abeslariaren kontzertua izango da Getxo Antzokian 20.00etan.

■ Lesaka

● Koma taldearen kontzertua Atxaspi Ostatuan 23.00etan.

■ Santurtzi

● Izaki taldearen kontzertua izango da Graphic Pubean 21.00etan.

■ Urruña

● Bittor Aiape. Frontoian 22.00etan.

antzerkia

■ Zakoiti

● Kale gorrian. Baztertxo Antzokian 22.30etan.

■ Barakaldo

● Traspasos eta J.P taldeak Pasarela

■ **Fitxa** Obra: La sombra del Tenorio. Zuzendaria eta antzezlaria: Rafael Alvarez El Brujo. Taldea: Zampano. Ekoizlea: Pentacion S.L.

Don Juanek antzerkia maitarazten

AUKERA ederra eskaini diguna Donostiako Kultur Patronatuak antzerkiaren historian ezagunenetakoa den pertsonaiarengana hurbil gaitzen. Don Juanek antzokietatik irten eta gizarteak ligoaren irudia errepresentatzen du. Pertsonaia estereotipatua. Inauterietan mozorro txukuna. Larunbat gauetz hartzen dugun izakera. Don Juan grinaren eta maitasunaren arteko topaketa da. Eta txantxa. Eta jokoa. Eta bizitzaren dastaketa. Dena dela, hain ezaguna bada ere aukera gutxi izaten dugu bere jatorrizko sorlekuan ikusteko, alegia, taula gainean. Pasa den asteburuan izandakoa, hargatik, ezin besterik gabe pasatzen utzi.

Lehenengo antzezki proposamena antzezle bikaina dela aspaldi frogatua duen Rafael Alvarez El Brujo-ren eskutik etorri zitzaigun. Tenorio pertsonaiaren inguruan Alonso de Santos antzerkigileak idatzitako bazarriketa eskaini zigun El Brujok. Tenorioren aitzakia hartzen du antzerki munduaren barrura sartzeko eta bizitza osoa bigarren mailako pertsonaiak egiten pasatuko antzerkiaren nahiak eta frustrazioak kanporatzeko. Antzezleri honek Jose Zorriaren Don Juan Tenorio antzezlanean beti graziosoarena egiten zuen. Beti pertsonaia bera. Baina berak Don Juan egin nahi zuen.

Idea horretatik abiatuz, 50eko hamarkadan herriz herri zebiltzan antzerki konpainien bizimodua agertuko digu. Testu ederra egitea lortzen du idazleak, beste behin frogatuz gaur egun gaztekeraz idazten den antzerkian bere lekua egin duela.

Baina ekoizpen honetan zerbait baldin badago azpimarratu beharra interpretazio lana da. Noizbait eszenatokira igo baldin

bazarete jakingo duzue zeinen zaila den ikuslearen arreta irabaztea eta zure lana era txukun batez agertzea; are zailago bakarrik bazaude; bada El Brujo ikusterakoan inbidia baino ez nuen sentitu bere lana ikusterakoan. Lehenengo unetik arreta gutzia beregan jartzea lortu zuen, eta horrela jarraitu zuen txaloea entzun arte. Harrigarria zen nola salto egiten zuen antzezleriaren pertsonaiatik Tenorioren pertsonaiara, bakoitzari bere izakera emanez eta bakoitzaren erregistroak txukun mantenduz. Eta hori gutxi balitz bezala, atsedenean ikuslearekin mintzatzen jarraitzen du baina oraingoan Rafael Alvarez bezala, hau da, bera den pertsonaia antzetzuz. Eta gero berriro antzezlanean agertzen diren pertsonaietara. Harrigarria, zergatik deitzen dioten El Brujo ulertu nuen. Sorginkeriak egiten ditu ikusleekin, pertsonaiekin. Halako antzezlaria lanean ez ikustea barkaezina da antzerkia maite duenarentzat. Eta ez duenarentzat ere bai, berarekin antzerkia maitatzen ikasiko baitu. Don Juan Tenorio bezala bere altzora eramaten gaitu bere trikimailu guztiak erabiliz. Komentatzen ari garen Don Juan Tenorio pertsonaiaren inguruan antolatutako jardunalditxo hauek eskaini diguten bigarren antzezlanaren Tirso de Molinak idatzitako El Burlador de Sevilla izan da. Antzezlan honetan sortzen da don Juanen pertsonaia eta mitoa. Madrilo Zampano taldeak klasikoaren eszenaratzean dauka bere izatea, eta ekoizpen honekin bere hamargarrena dute.

Ez da erraza espainiar antzerkiko klasiko bat ikustea gure eszenatokietan. Bertsotan antzezlan bat ikustea telebistako zerbait

dirudi gehienetan, eta ez zuzen-zuzenean gozatzeko ikuskaria. Madrildarrak eskaintza hori egiten digute eta txukun eskaini.

Tirso de Molinak idatzitakoaren egokipe-na egin dute. baina beti ere klasikotasunaren muina mantenduz. Eszenografia xumea da: ohe bat -noski!, bionbo bat, mahaia eta eszenatokiko protagonista bihurtzen den armarioa, nondik pertsonaiak agertu eta desagertu egiten diren. Azken osagarri horrekin pertsonen barruko armarioa agertu nahi izan dute, non gure miseriak gordetzen ditugun eta ireki orduko bere izateaz ohartzen garen.

Lan ederra egiten dute Zampanokoe. Ahalegin handiak egin dituzte XVII. mendeko antzezlanak bere muina gal ez dezan. Egungo erreferentziak erabiltzen dituzte atrezzo-an, jantzetan zein eszenografian, baina horiek ez dira oztopo girotze lanean. Aipagarria testuaren edertasuna. Taldekoek dioten bezala, lehenengo inpresioan bertsoak txorakeria direla pentsatuko dugu baina berehala konturatuko gara hitz bakoitzak, errimak bere lekua hartzen duela, bere esanahia ondo baino hobeto azalduz. Antzerkigintzako maisulan baten aurrean izango gara El Burlador-ekin.

Dena dela, hutsuneren bat aipatzeko-tan erritmoaren moteltzea aipatuko nuke. Badira zenbait une antzezlariek ez dutena mantentzen mantendu beharreko erritmoa, eta orduan hankamotz gelditzen da lana; zorionez, errekupepatzen jakiten dute eta ikuslearen arreta berriro bereganatzen.

Amaitzeko, zorionak berriro Donostiako Kultur Patronatuari halako jardunalditxoak antolatzeagatik, eta horrelako kalitatearekin, antzerkiaren mesederako baita. Eta zorionak bi taldeei antzerkia pixka bat gehiago maitarazten jakiteagatik.

Joxemari Carrere Zabala

antzezlan taularatuko du Barakaldo Antzokian 20.00etan.

■ Berango

● Presoak Euskal herrira antzerkia izango da HBk antolatutako jaialdiaren barruan Frontoian 20.30etan.

■ Bilbo

● Gasteiz Antzerki Taldea. Aurpegi atzekaldea antzezlan taularatuko du Deustuako La Fundicion Aretoan 12.00etan haurrentzat eta 20.30etan helduentzat euskaraz.

■ Donostia

● D'Espectacles Teatro taldeak Hop, Era an6zezlan taularatuko du Lugaritz Kultur Etxean 20.00etan.

■ Galdakao

● Kafe Antzerkia. 'El negro y el Flaco' bikoteak Buffunfita antzezlan taularatuko du Usansoloko Ibaiondo Jatetxean 24.00etan.

■ Gasteiz

● Tricicle taldeak Entretrés umorezko antzezlan taularatuko du Principal Antzokian 20.30etan eta 23.00etan.

bertsolaritza

■ Ea

● Bertso afaria. Bertsolariak: Iñaki Gonzal, Peru Aranburu eta Iñaki Aurrekoetxea. 21.00etan.

■ Hondarribia

● Bertso saioa. Bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Ainhoa Agirrezabaldegi eta Xabier Amuriza. Bentako Arrantzaleen Kofradian 22.00etan.

zinema-bideoa

■ Basauri

● 'La Red' filmaren emanaldia izango da Social Antzokian 17.15etan, 20.00etan eta 22.30etan.

■ Bilbo

● Cho Oyu eta Lhotse mendien diapositiba emanaldia eskainiko dute Iñurategi anaiek Kafe Antzokian 18.00etan.

■ Galdakao

● 'Tod y Toby' marrazki bizidunen emanaldia izango da Torrezabal Kultur Etxean 17.00etan.

● 'Showgirls' filmaren emanaldia izango da Torrezabal Kultur etxean 19.45etan eta 22.30etan.

■ Mungia

● 'Asterix Bretoiñan' marrazki bizidunen euskarazko emanaldia izango da Torrebillela Kultur Etxean 12.00etan.

■ Ordizia

● 'Eguzkiaren erregea' filmea ikusteko aukera izango dute 3 eta 8 urte bitarteko haurrek. Hitzaro elkarteak antolatutako emanaldia euskaraz izango da. Barrena Kultur Etxean 17.00etan.

■ Zornotza

● 'La Red' filmaren emanaldia izango da Zornotza Aretoan 20.00etan eta 22.30etan.

bestelakoak

■ Andoain

● Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazoek ikuskizuna eskainiko dute Allurralde Kirolegian 18.00etan.

■ Getxo

● Musika, jolasak eta bideo pelikulak. Algorta eta Erromoko kultur etxeetan 17.00etatik 21.30etara. 14 urte gorakoentzat.

■ Ibarra

● Trikibazkaria. 14.00etan. Ondoren antzerkia izango da. Gaztetxean. Heavy-ren omenez.

■ Ondarroa

● Liburu aurkezpena. Adiós prisión Juan José Grafiaren liburua aurkeztuko dute Pepe Rei kazetariak eta Txalaparta argitaletxeak.

erakusketak

■ Basauri

● Kultur Jazz Basauri Aretoa. Jazzografias Jose Manuel Hornaren erakusketa ikusgai egongo da. Gaur azken eguna.


■ Bilbo

● La Bolsa Gizarte Etxean. Bertsolaritza erakusketa. Gaur azken eguna.

● La Brocha. Zumeta margolariaren erakusketa martxoaren 30era bitartean.

● La Fundicion Aretoa. Pedro Carreraren 'Retrato de memoria' erakusketa. Gaur azken eguna.

● Barrainkua Kultur Etxea. Bilboko Tirteren Erakusketa. Gaur azken eguna.



Mikel Laboaren kantaldia izango da gaur Donostiako Victoria Eugenia Antzokian.